

Kripan

Joxean AGIRRE

Orain bi hamarkada Arabar Errioxako EAJkoek disgustu txiki bat zuten bakoitzean «*siempre nos quedará Kripan*» esaten omen zuten, herrixka horretako biztanleriak (ez dira 200 lagunera iristen) ia osorik EAJri ematen ziolako botoa. Igandeko emaitzei begiratu dut, eta multzo txiki bat bazuen Bilduk ere. Badirudi EAJri ez zaiola Kripanik gelditzen.

Oiongo ikastolan banuen irakasle eza-gun bat ondoko herrixka batean zinegotzi jeltzalea zena. Ea ikasle nagusienen artean zer giro zegoen galdetzen nio-nean, gehiena mugitzen zirenak ezker abertzalekoak zirela esan ohi zidan, bai-

na itzuliko zirela bide onera. Adinarekin Bildura joan dira, nonbait, indar hau nagusitu baita herrian. Halatsu gertatu da, Ebrotik gertu dagoen beste herri bat aipatzearen, Bastidan ere.

Kanpaina honetan Otxandianoren tonu *profesoral*a asko gustatu zait, eta Arnaldoren esaldi borobil batzuk ere bai, zirimiriarena esaterako, edo «poliki goaz, urrutira goazelako», eta pazientzia estrategikoaren kontua eguneroko hizkeran integratu dut. Inguruan gurasoren bat semearen alferkeriaz edo alabaren ganora faltaz kexatzen sumatzen badut, «eduki ezak, gizona, pazientzia estrategiko pixka bat», esaten diot.

Asko gustatu zitzaidan, halaber, gaueko ospakizunean emaitzak komentatzekoan bi buruzagiek erakutsi zuten nazio ikuspegia, Sabin Etxean “ederretik libratu gara” esanez bezala euforiari emanak zebiltzanean.

Hauteskunde gaueko ariketarik dibertigarriena emaitzak herriz herri begiratzea izan ohi da. Orexan, esaterako, Bilduk bakarrik atera ditu botoak, 2020an EAJk atera zituen laurak desagertu egin baitira.

Aurrera begira seguru nago gorabeherak izango ditugula eta disgustu txikiren bat dugunean «Beti geratuko zaigu Oresa», esango dugula, orain hogeit urte EAJkoek Kripani buruz bezala. •

Eta ez begiratzearen ez begiratzeaz...

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Zenbat gauza egiten ditugu pentsatu gabe? Zenbatetan iristen gara zenbait puntutara ze bide hartu dugun konturatu gabe? Egunean zenbat momentutan sentitzen dugu arreta jartzen diogula egiten ari garen horri? Zenbateraino bizi gara gauzak automatikoki egiten? Eta zenbateraino inporta digu horrek?

Kotxea gidatu, mugikorra atera eta ordua begiratu, gure sinadura egin, bazkaritan hagin artean geratu den haragi zatiari mingainarekin tira egin, kolokan dagoela dirudien baldosa saltatu, pedalei eragin bizikletan, telebistako kanalak aldatu, etxeko giltzak topatu poltsikoetan, gure solairuari dagokion zenbakia sakatu igogailuan,

kafe-makina martxan jarri goizean goiz -edo irratia-, hankapeko bost zentimoko txanpona jaso, aharrausi egin, listua irentsi -edo espagetiak-, Mugia pasa tranbiara igo aurretik, azazkal inguruko haragi gorrituari kosk egin, bekain bat goratu...

Ez dakit noiz hasten ote garen gauzak pentsatu gabe egiten. Errepikatzearen errepikatzeaz, pentsatu izan dut askotan. Ordea, nago pilotu automatikoak ez ote gaituen bideratzen bizi-erritmo batzuetara, zeinetan, ziztuaren zitzuz, ezin diogun erreparatu geure pausoari. Eta ez begiratzearen ez begiratzeaz, utzi egiten diogu geure buruaz pentsatzeari ere.

Inposatu nahi zaigun bizi-erritmoren parte da gauzak automatikoki egi-

tea. Pausatu genezake ibilera pixka bat, gelditu, ikusi, bizi. Entzun izan dut meditazio motaren bat badela gorputz-atalak hor daudela sentitzean datzana. Bada, meditatzekeo tarterik sekula hartzen ez dugunok hasi gintezke egunero-egunero automatikoki egiten ditugun gauzei moduren batean erreparatzen. Enbragea pixkana-ka nola soltatzen dugun, oheko mantapetik kafe-makinarako bidean zenbat urrats egiten ditugun eta aharrausi egin ahala gure aurpegierak ze itxura desberdin hartzen duen errebi-satzen, adibidez.

Mozolokeria dirudi, baina esango nuke balio diezagukeela bularraldeko zenbait estuasun baretzeko... •